

Taldeko lan isilari esker iritsi da NOAUA 1.000. zenbakira

Zenbaki borobil honen atzean ikusezin diren elementu asko nabarmendu beharra daude. Uztailaren 18an, Aginagan egingo dugun ospakizun ekitaldian, denak izango ditugu gogoan.

Esprinter iaioak errematea ematen du, lasterketaren azken metroetan pedalak astindu eta lehertu arte. Baina esprinterrak, helmugara fresko iritsi dadin, ezinbestekoa du bere taldeki-deen laguntza. Astekari baten martxa ere antzekoa izaten da. Jende askok gauza asko egin behar ditu, astero-astero eta modu sinkronizatuan, NOAUA etxe guztietara iritsi dadin.

Eskuartean duzun astekari hau ez da soilik argazki kamera eskuan dabiltzan horien lanaren emaitza. Ez da bat, bi, hiru edo lau langileren ahaleginaren fruitu. Astero etxeko buzoian jasotzen duzun al-dizkari hau aurrera atera ahal izateko, elementu ugari hartu behar dira kontuan.

Frantziako Tourra bete-betean den honetan, zilegi da konparazioa. NOAUA astero plazaratzea, taldekako erlojupeko baten modukoa da. Kazetari lanean zein bulego lanean inplikaturiko diren profesionalak behar dira, kolaboratzaile talde fin bat, fidatzeko moduko inprenta bat, astero hutsik egin gabe buzoirako bidea egingo duten banatzaileak, erakundeen babes ekonomikoa, publizitate jartzen dutenen ekarpena, NOAUA kultur elkarteak sustengatzen duten bazkideak, irakurleen jakinmina... Den-denak dira funtsezkoak.

Helburua argia da: ostiralerako astekaria etxe eta baserri guztietara iristea.



NOAUA hamaboskari gisa jaiotzen zen 1996an. 2005. urtean astekari bilakatu zen. Urteotan hutsik egin gabe plazaratu dugu. Pandemiak ere ez zuen gure martxa eten.

Taldekako lasterketetan bezalaxe, elementu bakoitzak bere erritmoa du. Eta bidean

"ASTEKARIA JENDE ETA ERAKUNDE ASKOREN LANAREN EMAITZA DA"

hamaika izan daitezke oztopoak, gure kontrolpetik kanpo daudenak. Denok baturik abiatuz gero ordea, eta armonia nagusitzen bada, garai-pena ziurtatuta dago. Eta gurean, astero-astero etxe guztietara iristea ospatzeko moduko balentria da. Jende eta erakunde askoren lan koordinatuaren emaitza.

IRITZIA



IBAN ARANTZABAL ARRIETA TOKIKOMEKO LEHENDAKARIA

Egiaren negozioa da hau

Negozioa baino gehiago, egiaren bilaketa. Edo egiak: testuingurudunak eta kontrastatuak. Gertuko egiak, tokiko istorioak.

Usurbildarrekin batera egindakoak behar du izan gero eta digitalagoa, gero eta noauakide gehiagorentzat, norbere kontrolpeko proiektu komunikatiboa.

"Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkarazten

du", esan zuen Torrealdai. NOAUAREN lana da herritarren, Beterri Buruntzakoen eta Euskal Herritarren onarpen zabala lortzea kazetaritza eginez. Tokiko euskal prentsan benetako aitortza irakurleek ematen dute. Aldi berean parte eta bezero diren milaka horiek.

2024an pauso sendoagoak egitea tokatzen da: alde batetik, norbanakoek; bestetik, administrazioek, inbertsio handiagorekin.

Ezinbestez, NOAUAK berak. Jokoan da euskara eta herrigintza. Ikusi besterik ez dago tokiko hedabide profesionalik ez dagoen lekuan eskuin baztertzaleak nola egiten duen aurrera Europan.

Ura bezain inportantea du gizakiak norbere komunitateko informazioa: gehiago eta pausatua, azkarrago eta sakonago, digitalago eta kazetariago.

Andatzatik behera Erroizpera doan ura edaten

da Usurbilen aspaldian, Añarbekoarekin lotura eten gabe, hala ere. Ez dezala urik galdu NOAUAK ez batetik ez bestetik: ur freskoz eta emari etenbakoan jarraitu dezala gertukotik hornitzen, TOKIKOMEkin batera, euskarari presarik jarri gabe, digitalean inbertituz eta komunitateari zerbitzua emanaz. Zorionekoak milaka aldiz NOAUAREN letrak irakurtzen dituzuenok. Ase dezala NOAUAK informazio egarria urte askoan.

IRITZIA



GARBIÑE MENDIZABAL MENDIZABAL

HIZKUNTZA BERDINTASUNEN ZUZENDARIA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Bidelagun izango gaituzue

1 996tik hona bidelagun izan dituztenak gogoan, tarte bat eskaini nahi izan dio Gipuzkoako Foru Aldundiari NOAUA astekariak.

Egia da bere norabidean lagundu duela Foru Aldundiak; eta azken urteotan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekin batera proiektu komunikatiboak indartu eta sendotzeko hitzarmen marko esanguratsua lortu dugu gainerako bi Foru Aldundiekin batera, Araba eta Bizkaiaikoarekin, alegia.

Eta orain, proiektu komunikatiboak bere osotasunean aintzat izango dituen politikak jarri nahi ditugu martxan urte honetan bertan. Hedabideekin batera osatutako mahaian ari gara lantzen irizpideak. Izan ere, munduaren bilakaerarekin batera joatea beste erremediorik ez dugu, aurrera egin nahi badugu. Bizi garen garaiotan ezin da ulertu informazio proiekturik ikus-entzunezkorik gabe, sare sozialik gabe, Interneti dagokion lekua eman gabe. Proiektu komunikatiboek ahalik eta zerbitzu hoberena eman behar dute. Informazioaren kanal guztiak hartu behar dituzte kontuan, eta indartsu izateko, komunitatearekin bat egiteko herritar guztiengana heltzeko intuizio eta ahalegina egin beharko dute. Guztiak diodanean esan nahi dut guztiak: aspaldiko euskaltzaleak, euskaltzale berriak, euskaraz ikasten ari direnak, baita euskaldunak ez direnak ere.

Beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak ere proiektu komunikatiboetan are eta leku gehiago egitea lortu behar dugu denon artean, gure komunitatearen parte izan daitezen.

Tokitik tokikoa eta tokikoentzat, komunitatea osatzen dutenentzat informatzea. Hori da, azken batean, NOAUAK urte hauetan guztietan egindako ibilbidearen zentzua. Gure herriak eta gure hizkuntzak behar ditu zentzu horretan lan egingo duten hedabideak.



"Garaiotan ezin da ulertu informazio proiekturik Interneti dagokion lekua eman gabe".

Aurrera begira jarrita, baita ere, behar ditugu herriz gaindiko proiektuak: 1.000, 3.000, 5.000, 10.000... herri aldizkariak zirenak eskualdeko proiektu komunikatibo izatera deituak daude. Ez bakarrik jende kopuru handiagoan eragin daitekeelako, herri horien arteko loturak handiak direlako, era berean. Izan dugu azken bolada honetan adibide bat baino gehiago, herriz gaindiko proiektu bilakatzeko saiakera egin duenik, horretara jo behar genuke.

Tokiko kazetaritzaren alde egiten jarraitu behar dugu elkarlanean, beraz. Tokiko kazetaritza arduratsuen alde. Fake news eta nolana hiko webgune digital-konfidentzialen garaiotan, gaietan inplikatu arren kazetaritza

"URTE ASKOTAN IZAN DEZAZUELA LOTURA KOMUNITATE ZABAL HORREKIN, AHALIK ETA ZABALENAREKIN, GERO ETA ZABALAGOAREKIN"

inpartziala egitearen alde; gertaeren inguruko bertsio guztiak jasotzearen alde; ikuspuntuak iturri ezberdinetatik eraikitzearen alde; testu eta irudietan gizartea bere zabalean islatzearen alde, gaiak euskaratik eta euskaraz sano eta sakon jorratzearen alde.

Tokikomeneko kide zarete NOAUA astekariakoak, eta Tokikomek parte hartzen du euskarazko hedabideak, Jaurlaritza eta Aldundiak elkartzen diren mahaian. Apiril amaieran webgunean argitaratu dute mahai horretatik bultzatutako kode deontologikoa. Baliagarria edozein komunikabiderentzat. Hango hitzak aipatu nahi nituzke:

- Hedabideek, "herritarren parte-hartze demokratikoa eta kritikotasuna sustatzen dituzte, eta eduki interesgarriak emateko helburua dute, ondo azalduta eta aztertuta eman ere, gaur egungo mundu konplexua ulertzen laguntzeko moduan. Euskal komunikabideen esparruak informaziorako eta eztabaidarako plaza oso bat eratu nahi du, herritarren zerbitzuan".

Entzuna diot Iban Arantzabali, Tokikomeko presidenteari, tokiko kazetaritzan ez dagoela gezurra esaterik. Fake news-ak nonahi zabaltzen diren garaiotan, zorionez, halakoek bide motza dutela tokiko prentsan; errena baino lehen harrapatzen dela notizia faltsua -zioen Ibanek-, esaera zaharra kontuan hartuz. Hori, komunitatearekin dagoen loturagatik da. Eta urte askotan izan dezazuela lotura komunitate zabal horrekin, ahalik eta zabalarekin, gero eta zabalagoarekin. Ona izango da eskualde honetako herritarrentzat ere.

Horixe opa diot NOAUARI aurrera begira ere: komunitatearen soro zabal horretan, orain arte ereindako 1.000 aleak abiapuntu hartuta, euskaratik proiektu komunikatibo berritua eta denen egarria aseko duena izatea.

Zorionak, ahalegin horretan bidelagun izango gaituzue!

IRITZIA



ESTIBALIZ ALKORTA BARRAGÁN EUSKARA SUSTATZEKO
ZUZENDARIA, EUSKO JAURLARITZA. 2020-2024

Hedabideen bidegurutzeta

Etorkizuneko euskarazko hedabidea irudikatze aldera, utzidazue Kike Amonarrizek zabaldu duen "Euskararen bidegurutzeta"ren kontzeptua baliatzea euskarazko hedabideen egungo egoeraren inguruan zertzelada batzuk emateko.

Euskararen kasuan bezala, hedabideen panorama guztiz aldatu da urte gutxitan, edukiak kontsumitzeko beste modu batzuk daudelako, teknologia berriek inork uste ez zituen errealitateak ekarri dituelako, adimen artifizialak sekulako aukerak baina arriskuak ere ekarriko dituelako eta belaunaldi berriek bestelako pentsaera eta izaera dakartelako.

Horren aurrean, euskarazko hedabideak inoiz baino zaurgarriagoak dira eta pentsatu beharra dute nondik jo eta nola ekin, bizirauteko ez ezik, euskararen biziberritze

prozesuan eragile aktiboa ere izaten jarraitzeko. Edonork edozer idatzi eta zabaldu dezakeen mundu digital erraldoi honetan ezinbestekoak ditugu gertuko komunikabideak, gure ingurukoaz informatuko dutenak, komunitatea sendotzeko lan egingo dutenak eta euskararen normalizazioan eragile aktibo bat izango direnak.

"EDONORK EDOZER IDATZI ETA ZABALDU DEZAKEEN MUNDU DIGITAL ERRALDOI HONETAN, EZINBESTEKOAK DITUGU GERTUKO KOMUNIKABIDEAK"

Baina horretarako guztirako, hil ala biziko kontua da etorkizunari aurrez aurre begiratzea eta hedabide eraginkorrek sortzea. Hau da, kalitatezko edukiak sortuko dituztenak, anitzak, modernoak, herritarrekin harreman estua izango dutenak, gure kulturen ongi errotoak egongo direnak, euskara ardatz izango dutenak eta mundu digitalean lan egiteko prest egongo direnak. Bide horretan, erakunde publiko bidelagun izan gara eta izango gara.

Erakundeen arteko elkarlana eta elkar ulertzea izan dira azken urteotan estrategia bateratua garatzeko gakoak. Eta horiek izan beharko dira hedabideak bidegurutzetik ateratzeko eman beharko ditugun erabakien berberak.

IRITZIA



AGURTZANE SOLABERRIETA MESA
USURBILGO ALKATEA

Gatza eta piperra

I996ko ekainaren 28an kaleratu zuen NOAUA aldizkariak lehen alea. Lehen aldizkari hura etxean dut gordeta, 1996ko urtekarian, gainerako guztiak ditudan bezalaxe. Polita izan da lehen alea esku artean hartu, eta Andoni Sagarna NOAUA kultur elkartearen lehen lehendakariaren agurra irakurtzea: "...badakigu hori dena ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula, baina badakigu halaber Usurbilen badela gatza eta piperra horretarako eta gehiagorako ere. Inolako zalantzarik gabe lortuko dugu. Eutsi goiari!". Baita lortu ere!

Proiektu honen parte izan naiz ia hasieratik. EHU'n Kazetaritza ikasten harrapatu gintuen NOAUaren sorrerak. Usurbildik hiru lagun joaten ginen Leioara: Olatz Lasagabaster, Amagoia Mujika eta hirurok. Gari, Josu, Ainhoa, Idoia... kuadrilla horren hurrengo kazetari belaunaldia ginen, eta berehala hasi ginen bertan kolaboratzen. Hasieran testu txiki batzuk idazten, eta, gutxira, kontratupean lanean. Memoriak huts egiten ez badit behintzat, ni publizista gisa hasi nintzen lanean, tartean kazetaritza lan batzuk ere egiten nituen, eta Amagoiak Inaxio

Usarralderen tokia hartu zuen, kultur dinamizatzaile gisa. Gerora, nik hartu nuen Amagoiaren lekukoa. NOAUA, beraz, gure kazetaritza eskola izateaz gainera, herrigintzarako bidea ireki zigun. Izan ere, NOAUA ezer bada, herri proiektu komunikatibo bat delako.

"NOAUAK HERRIGINTZARAKO BIDEA IREKI ZIGUN"

Tokiko komunikazioa tokiko garapenaren giltzarria da, eta sekulako betekizuna du herri baten kohesioan eta dinamizazioan. Are, informazioaren aro honetan. Are, handiek eta handiek dena berenganatu nahi duten aro honetan. Are, axaleko arinkeriak erruz eta erraz zabaltzen diren aro honetan. Garaiotan, beharrezkoa da txikiak ekarri, freskotasuna, seriotasuna eta profesionaltasuna. Gertutasuna. Km0a. Eta horixe dena da NOAUAK usurbildarroi eta Usurbili eskaintzen diena. Gainera, nabarmendu nahi dut, NOAUAK izan duen atrebentzia eta gaitasuna garai berrietara egokitzeko eta gaur egungo komunikazio-bitarteko, molde eta tresna teknologiko berriak baliatzeko, begiratu propioa galdu gabe eta une oro herritarrekin sinbiosian. Zortekoak gara usurbildarrok NOAUA bezalako aldizkari, webgune eta elkarte bat izateagatik.

Horregatik, nire eskerrik zintzoenak helarazi nahi dizkizuet egunero-egunero gure herrian gertatzen den guztiaren berri hain modu eraginkor, azkarrean eta profesionalen usurbildarrei eskaintzeagatik, eta euskararen eta kulturaren alorrean zuen ekarpena egiteagatik. Ez dut dudarik, guk lehen egin bezala, belaunaldi berriak ere lotuko zaizkiola proiektu honi, Usurbilen badelako gatza eta piperra horretarako, duela 28 urte Andoni Sagarnak nabarmendu bezala.

"Herriari irekita dagoen elkarte da NOAUA"

IDOIA TORREGARAI ETA UGAITZ AGIRRE LEHENDAKARI OHIA ETA LEHENDAKARI BERRIA

Idoiak hamar urte egin ditu lehendakari karguan. Ugaitzek oraintxe hartu du ardura hori. NOAUAREN iraganaz, orainaz eta geroaz hitz egiteko aitzakia ederra eman digu kargu-aldaketak.

NOAUA martxan jarri zuen taldeko kideetako bat zara, Idoia. Kazetaritzako ikaslea zinen garai hartan. Urteotan kolaborazio ugari egin dituzu NOAUA aste-karian eta azken urteak lehendakari gisa jardun duzu. Beti egon zara NOAUATik oso gertu.

Idoia Torregarai: Nire bizitzaren parte da NOAUA. 1996an jarri zen martxan baina lehenago hasi ginen lanean. Ilusio handiarekin ekin genion. Orduan ez zegoen antzekorik hemen eta herri aldizkaria sortzeko asmoaren bueltan talde bat batu ginen. Eta martxan, herriaren babes handiarekin jarri genuen martxan.

Kazetari bezala ez ezik, publizista bezala ere aritu nintzen bolada batean, eta gero kolaboratzen ere hainbat urte egin nituen. Azken urteak lehendakari moduan igaro ditut... Benetan sinisten dut NOAUAK egiten duen lanean eta, era berean, NOAUA gabe zaila egiten zait nire bizitza irudikatzea.

NOAUAK 1996an kaleratu zuen lehen zenbakia. 1.000garrena da haxe. Aldizkaria sortzeko ideiarekin tematu zinetenak zuzen zeundetela frogatzen du honek, ezta? Denborak arrazoi eman dizuela, alegia.

Argi zegoen. 1995-1996 urteetan, ez zegoen euskarazko komunikabiderik Usurbilen. Hemen gehien irakurtzen ziren hedabideak *Egin* eta *El*

Diario Vasco egunkariak ziren,...

Garai hartan gainera, egunkariak irismen handiagoa zuten.

Pisu handia zuten, bai. Ez zegoen tokiko albisteak euskaraz irakurtzeko aukera handirik.

Ordurako, gure aurretik bazebiltzan mugimendu batzuk Arrasate inguruan,.... Usurbilgoa beraz, ez zen ezerezetik sortu. Herri komunikabideak sortzeko mugimendu bat bazen, eta guk ere halako argitalpen baten beharra ikusi genuen. Horregatik oso argi genuen egiten genuena egiten genuela, etxe guztietara zabalduko genuela. Ez soilik bazkide egiten zirenen artean. Irakurketa unibertsala izatea nahi genuen. Euskara Usurbilgo etxe guztietara sar zedin. Euskaraz irakurtzeko ohitura sustatu, eta gertukoaz gertutik informatua izateko eskubidea bermatu.

Jende pila baten ahaleginaren emaitza izan zen aldizkaria. Adin eta esparru ezberdinetako herri-

"OSO ARGI IZAN GENUEN HASIERA HASIERATIK NOAUA ETXE GUZTIETARA ZABALDU BEHAR GENUELA"

tarrak batu ziren egitasmo honen bueltan. Egitura profesionalizatu den heinean, premiak aldatu egin dira, galdu du orduan zuen lan talde zabal haren laguntza... Akaso hori da berreskuratu behar-ko litzatekeena?

Herrigintzarekin lotutako proiektu guztietan ere antzeko fenomenoak eman dira. Gizartea aldatu egin da, behar-izanak ere bai... 25 urteko gazte batek betidanik ezagutu du NOAUA, beretzat naturala den zerbait da. Baina gaurko egoerara iristeko aha-lerin bat egin behar izan zen, jende askoren babes lortu behar izan genuen hasiera hasieratik. 90eko hamarkadan horrela funtzionatzen genuen. Gauza asko zeuden egiteko, zerotik hasi behar zen eta egin egiten genituen. Gaur egun, gauza asko eginak daude, eta batzuk oso profesionalizatuta zorionez, osasun onarekin... Eta hori ere bilatzen genuen, euskarazko komunikabideen martxa ere normalizatzea. Hori ere bazen gure helburuetako bat.

"DENBORAREKIN BESTE PREMIA BATZUK SORTU DIRA ETA NOAUAK JAKIN DU BEHAR HORIEI ERANTZUTEN"

Gizartea eta garaia aldatu dira eta ezin dugu bizi, "lehenagoko garaiak hobeak ziren" esanez.... Ez zait oso sana iruditzen. NOAUAK garai berrietara egokitzen asmatu du. Eta hori azpimarratu beharko genuke.

Dena den, gaur egun egunerokoan ez bada sumatzen ere, NOAUAK orduko babes mantentzen duela esango nuke.

Zentzu horretan, NOAUAK (elkar-teak eta aldizkariak) oso gertu jarraitzen du herri dinamika. Badago elkarlanerako joera bat. Sinergiak sortzeko bokazio hori betidanik izan du, ezta?

NOAUA herri hedabide bat izateaz gain, kultur elkarte bat ere bada. Denborarekin bilgune batean bilakatu da. Herriko erakunde, elkarte zein norbanakoen berriak zabalteko hedabidea da astekaria. Baina kultur elkarte garen heinean ere, hor saiatzen gara sinergiak sortzen eta indarrak biltzen. Usurbilgo ekosistema horretan, NOAUA erreferentzia garrantzitsua da. Eta nik ere horrela ulertzen dut herrigintza eta kulturgintza, denak elkarrekin, Usurbil aberasteko helburuz.

Esan duzu: garaiak eta ohiturak aldatu egin dira. NOAUA Kultur Elkartearen zereginak ere eraldatu dira. Esparru gehiagotara iristen da orain. 'Bertan goxo' geratu ordez, etengabe hazteko joerari eusten dio, euskarari lotutako dinamika guztiei adi.

Gauza asko egin ditugu urteotan. Denborarekin beste premia batzuk sortu dira eta NOAUAK jakin du behar horiei ere erantzuten.

Hasteko, 1000. zenbakira iritsi egin behar da. Erraz esaten da baina urteotan herri aldizkariak jakin du eguneratzen: hamaboskaria zena astekari bilakatu zen, jauzi digitala egin zuen, noaua.eus web orrian edizio jarraituaren aldeko apustua egin zen (luxu bat dena irakurleentzat),...



"Gure ahaleginaren arabera, beti eduki behar dugu hobetzen joateko anbizioa", Idoia Torregarai aditzera eman digunez.

→ Kultur ekitaldiak antolatzeaz gain, aspalditik Udajolas kudeatzen dugu udal lizitazio baten bidez. Urtero-urtero 200dik gora umeei euskarazko aisialdia eskaintzen zaie. Eta ikasturtean zehar, Zirimara ere kudeatzen dugu. Erronka bota ziguten, heldu genion eta hor ere ari gara: klubetatik eta betiko kirol jardueretatik harago aisialdia euskaraz bermatzen.

Turismorako jauzia izan da eman dugun azkena. Udalaren lizitazio batekin ari gara arlo hori lantzen. Bestelako turismo eredu bat sustatu nahi da eta horrekin bat gatoz.

Esango nuke NOAUak jakin duela urte hauetan guztietan garaian garaiko beharretara

moldatzen, aberasten eta ekiten.

Idoia, Ugaitz Agirrek hartu berri du lehendakari kargua. Zer da herentzian jasoko duena?

Oso proiektu indartsua eta orekatua, eta gauzak egiteko gogoia. Usurbil mailan eragile inportante bat da NOAUA,

"NOAUA PROIEKTU INDARTSUA ETA OREKATUA DA, EKITEN JARRAITZEKO GOGOARI EUSTEN DIONA"

bere pisu espezifiko duena. Gure ahaleginaren arabera, beti eduki behar dugu hobetzen joateko anbizioa.

Lan talde profesionala eta gizatiarra topatuko du NOAUAn. Oso erraza da beraien lan egitea. Asko emateko prest daude, baita bere orduetatik aparte ere.

"ZURE KULTUR GOGO HORIEK GUZTIAK ASETZEN LAGUNDU DEZAKEEN ELKARTE BAT DA NOAUA"

Gauza askorekin gabiltza azken urteotan baina erronka politak egiteko ere tokia izango duzu, Ugaitz.

Gazteagoa den pertsonak batek hartu du lehendakari kargua. Hori ere bada seinale bat, ezta?

Zalantzarik gabe. Hori ere baten gure asmoa. Lehendakaritza aldaketa honek ere hori irudikatu beharko luke, balaunaldi aldaketa, gazteek ere bere egin behar dute NOAUA. Hori da eragile askok dugun erronka. Ugaitz pertsona egokia izango da balizko proiektu berriak bultzatzeko.

Ugaitz euskara irakaslea zara ogibidez. Idaztea da zure pasio handietako bat. Eta adinagatik, NOAUarekin batera hazi den belaunaldikoa zarela esan daiteke. Ugaitz Agirre: NOAUA jaio zenean, nik lau urte nituen. Idoiak lehen esan duen moduan, nik betidanik ezagutu dudanzert bait da. Herrian gertatzen denaren inguruko informazioa bilatzeko tokirik aproposena dira noaua.eus weborria eta NOAUaren sare sozialak. Eta orain jaien garaia den honetan, egitarauak eta agenda kontuak ezagutzeko ere funtsezkoak dira.

Bestetik, eta aldizkarian atezatzen diren elkarrizketen eta artikuluen bitartez, herrian zer nolako mugimendua dagoen ulertzeko aukera duzu. Herriko ekosistemaren erretratu bat egiteko oso egokia da. Kulturatik nator ni, dantzatik, eta zerbait antolatua nahi bada, NOAUara jo izan dugu gure ekitaldiaren berri emateko, baina elkarren artean ere, NOAUak eta Orbeldik egin ditugu gauzak elkarlanean. Nik uste dut proposamenak entzuteko prestutasuna duen elkarte delako NOAUA, eta gero dauden baliabide, indar eta energiaren arabera, gauza batzuk bideratuko dira eta beste batzuk akaso ez, baina arlo horretan ere bada erreferentzia puntu bat herrian. Zure kultur gogo horiek guztiak asetzen lagundu dezakeen elkarte bat.



Idoia Torregaraiaren lekukoa Ugaitz Agirrek hartuko du. Gazte mugimenduan eta Orbeldi dantza taldean aritutakoa, NOAUaren dinamikara batu berri da.

"Gero eta indibidualistagoa den gizarte honetan, komunitatea osatzen segi beharra dago"

"Lelo zaharrak dioen bezala, euskararen eta kulturaren aterpe ere bada NOAUA". Ugaitz Agirreren ustez, "Kulturgintzako jende asko hurbiltzen zaigu, eta hori indartu edo horretan eragin behar dugula uste dut".

Lehendakari kargua hartzeko eskaintzari baiezkua eman aurretik, aste batzuk eskatu zenuen. Zerk bultzatu zaitu eskaintza onartzera?

Ugaitz Agirre: Hilabeteko epea eskatu nuen. Aldekoak edo kontrakoak neurtu baino, inguruko batzuekin hitz egin nahi nuen. Azkenean, ondorio honetara iritsi nintzen: "goazen probatzera eta ea zer egin dezakegun hemen". Nire aletxoa jarriko dut, gainontzeko guztiekin elkarlanean.

Orain arteko solasaldian, NOAUaren historiaren laburpentxoak egin dugu. Idoiak esan duen bezala, 90eko hamarkadan mugimendu partehartzailea akaso handiagoa zen, gerora apaltzen joan dena,

baina garaiak bezalaxe formatuak ere aldatu egin dira, eta gerora beste hainbat jauzi egin dira (digitalak eta bestelakoak). Hemendik aurrera zer? Ba ez dakigu ze etorriko zaigun. Horren aurrean, ideiak garbi ditugu: euskal kultura eta euskara jomugan izanda, eta horiek beti helburu, egoera berrietara moldatu eta gauzak ahal dugun ondoen egin. Eta bidean jende gehiago motibatzen bada, ba askoz hobeto.

Indibidualizazioa are eta handiagoa da, zer esanik ez NOAUaren moduko herri egitasmoetan, non halako ardurak boluntarioak diren. Zuk kontrara, NOAUaren organigramara batzeko urratsa eman duzu Ugaitz.

U. A.: Orokorrean, diagnostikoa hori da. Geroz eta indibidualistagoak gara eta gainera dena mastekatuta jaso nahi dugu. Ez dakit, egia da ni natorrela oso gaztetatik Usurbilgo hainbat mugimendutan sartuta: gazte ekimenean, txosnetan, dantza taldean... Hor ibili gara beti. Gero eta indibidualistagoa

"NIRE ALETXOA JARTZERA NATOR, NOAUAKO GAINONTZEKO KIDEEKIN BATERA ELKARLANEAN"

UGAITZ AGIRRE

den gizarte honetan, hemen komunitatea osatzen segi beharra dago. Era batera edo bestera, bakoitza bere harrikadarekin, baina Usurbilek merezi du. Elkarren artean laguntzeko prest dagoen herri bateko kide izatea gustatuko litzaidake.

Lelo zaharrak dioen bezala, euskararen eta kulturaren aterpe ere bada NOAUA. Kulturgintzako jende asko hurbiltzen da gure artera, eta hori indartu edo horretan eragin behar dugula uste dut. Eta badakit gazteek ere badituztela antzeko motibazioak.


Kulturgunea eta Elkargunea dira horren adibide. NOAUA ere bietan ari da parte hartzen.

U. A.: Hori da.

Idoia Torregarai: Eta abagune interesgarriak dira biak, ideiak eta proiektuak partekatzeko ezinbestekoak.

Orbeldirekin ere lotzen zaitu jendeak. Dantza Taldean ere segiko duzu, ezta?

U. A.: Dantzari bezala, bai noski. Gustura egiten dudana jarduerak da. Askok gozatzen dut dantzarekin.



TOKIKOMek garatutako web plataformaren teknologia baliatzen dugu noaua.eus web orrialdean. Honi esker, multimedia edukiaren karga eta bisualizazioa azkartu egin da.

NOAUA.eus, sareko erreferentzia nagusia

2023ko datuek argi adierazten dute. NOAUAREN edizio digitalak gero eta bisitari gehiago ditu. Sare sozialetan ere, jarraitzaile kopuruak gora egiten segitzen du.

NOAUAKO erredakzioak kudeatzen duen noaua.eus web orrialdeak sasoi onean segitzen du. Pandemiak bisita kopuruaren igoera nabarmena ekarri zuen duela hiru urte. 2023an gaitzaren ondorioak atzean geratu ziren eta hala ere, noaua.eus web orrialdearen audientziak goranzko joerari eutsi zion. Sare sozialetan ere datuak baikorrak dira. Zabalik ditugun profil denetan igo da jarraitzaile kopurua.

Azken hiru urtetako datuak, inoizko onenak

Bisita kopuruak gora egin zuen pandemia garaian. Etxetik ezin atera eta informazio gosea, horiek izan ziren orduko igoeraren gako nagusiak.

2022. urtean pitin bat jaitsi zen noaua.eus web orriaren audientzia. 2023an ordea, igo egin zen berriro. Dena den, inoizko daturik onenak pila-

tu ditugu azken hiru urtean jarduera kontuan hartzen badugu:

- 2023: 186.423 bisita.
- 2022: 156.372 bisita.
- 2021: 163.074 bisita.
- 2020: 146.250 bisita.
- 2019: 102.227 bisita.

Erabiltzaile kopuruak, gora

2023an, 54.286 erabiltzaile edo irakurle hurbildu ziren gure web orrialdera. 2022an, 46.452 izan ziren, 2021ean 44.783. Goranzko joeran segitzen du erabiltzaile kopuruak. Erabiltzaile berrien kopuruak ere gora egin du. 2021eko datuekin alderatuz, %4,96 igo da bisitari berrien kopurua.

Ikustaldiak ere, nabarmen gora

Erabiltzaileen igoerak ikustaldien gorakada ekarri du.

- 2023: 398.931 orrialde.
- 2022: 318.589 orrialde.

- 2021: 322.712 orrialde.
- 2020: 293.996 orrialde.
- 2019: 230.310 orrialde.

Sarean eta paperean

Jende asko sare sozialetan birtartez ailegatzen da noaua.eus web orrialdera. Elkar-eragile dira hortaz, noaua.eus web orria eta sare sozialak (twitter/noaua, facebook/noaua, youtube.com/noauatb, instagram.com/noauaastekaria/).

"2022. URTEAN PITIN BAT JAITSI ZEN BAINA 2023AN NOAUA.EUS WEB ORRIALDEAREN AUDIENTZIAK GORA EGIN ZUEN"

Horren erakusgarri dira sare sozialetako audientziak. Jarraitzaileen kopuruak gora egiten segitzen du eta orokorra da; gure sare sozial guztietan eman den fenomeno da (ikus azpiko taula).

NoauaTB bideoteka

Gure web orrialdean bada NoauaTB izeneko atala. Bideoteka funtzioa betetzen du eta atal honen eskaintza ere gero eta handiagoa da. 2023. urtean 434 bideo-pieza sare-ratu eta noaua.eus web orrialdearen bidez zabaldu genituen.

Sare sozialetan irismena

facebook/noaua

NOAUAKO erredakzio taldeak Facebooken duen profilak 1.869 jarraitzaile zituen 2023. urte amaieran.

- 2022an, 1.746.
- 2021ean, 1.658.
- 2020an, 1.613.
- 2019an, 1.516.

twitter/noaua

NOAUAKO erredakzio taldeak Twitterren(X) duen profilak 1.599 jarraitzaile zituen 2023. urte amaieran.

- 2022an, 1.524 jarraitzaile.
- 2021ean, 1.481.
- 2020an, 1.420.
- 2019an, 1.295.

instagram/noauaastekaria

- 2023an, 1.351 jarraitzaile.
- 2022an, 1.131.
- 2021ean, 1.029.
- 2020an, 892.
- 2019an, 616.

youtube/noauatb

- 2023. urtean, 658 harpidedun. Pilatutako ikustaldiak: 715.795.
- 2022an, 562 harpidedun eta 577.892 ikustaldi.
- 2021ean, 492 harpidedun eta 501.151 ikustaldi.
- 2020an, 433 harpidedun eta 450.984 ikustaldi.
- 2019an, 324 harpidedun eta 397.733 ikustaldi.



Aginagan arituko da ostegun honetan. "Entzuteko emanaldi bat dela esango nuke, trinkoa eta soila". DAVID HERRANZ

"Emanaldia oso xumea da, soila. Ez dauka pirotekniarik"

MAIALEN LUJANBIO BERTSOLARIA

Maialen Lujanbiok *rr-6-erre(AH)ala* izeneko emanaldia eskainiko du ostegun honetan, hilak 18, Aginagako Eliza Zaharrean. Bertsorik ez da faltako, "baina beste leku batzuetara joko dut eta hitz lauz, hitz bakanez eta bestelako formatuetan ere arituko naiz".

2018. urtean eskaini zenuen 'rr' emanaldia lehen aldiz. Seigarren aldaera aurkeztuko duzu Aginagan. Urtez urte, eraldatzen joan den emanaldi bat dela ondorioztatu dezakegu?

Hori da. Horregatik gehitu diot zenbakia. Markoak edo proiektuak rr du izena. Hasi nintzenetik hona, emanaldiak ez dira ugariak izan. Baina txanpa batetik bestera, denbora pasa da eta aldiro zenbaki batekin izendatu dut; bestelako bertsio bat dela adierazteko edo. Biratxo osatuena 2022. urtean egin genuen baina hasi, lehenago hasi ginen bai, 2018an edo.

Hitz joko baten emaitza da izenburua: *rr-6-erre(AH)ala*. Gaurkotasanari, aktualitateari egiten dio erreferentzia *erre(ah)ala*-k ala bestelako azalpena du izenburuak?

Izenburua anbigua eta orokorra da, eta hala nahi nuen. Emanaldiak garaiarekin eta lekuarekin lotura du, nolabait esanda. Gure garaiaren kontuei buruz ari da. Beraz, badu errealitatearekin lotura eta, era berean, kixkaltzen ari den garai hau iradokitzen du.

Bertsozaleak bat-bateko saioekin lotzen zaitu. Halaxe aritzen zara

gainera, batetik bestera. Plazara, ohiko bertso-saio batera hurbiltzen den horrek zalantza bat izango du ziurrenik: Aginagan eskainiko duzun emanaldia bertso-saio baten dinamikatik oso aparte egongo al da?

"EMANALDIAREN FUNTSA HITZETAN DAGO. ENTZUTEKO EMANALDI BAT DELA ESANGO NUKE, TRINKOA ETA SOILA"

Ez dakit distantzia kalkulatzeko baina ez du zerikusirik handirik bapateko bertso-saio batekin.

Batetik, ni bakarrik nagoelako oholtza gainean eta bapateko saio batean ezinezkoa litzateke bakarkako saio bat egitea.

Bestetik, emanaldiko testuak ez dira bapatekoak izango. Ekintzak eta testu zatitxoren bat izango dira bapatekoak baina piezak idatzizko testuak dira. Beraz, ez du bapatekoarekin hainbesteko loturarik.

Hizkuntza tratatzen da baina hizkuntzaren plastizitate horrek forma ezberdinak hartzen ditu. Bertsoa bada noski, baina beste leku batzuetara ere joko dut, eta hitz lauz, hitz bakanez eta bestelako formatuetan ere ariko naiz.

Egia esan, bapateko saioarekin ez du zerikusirik handirik. Ezinbestez, idatzizko testuak emanaldiari beste izate bat ematen diotelako, beste aire bat eta beste trinkotasun bat.

Irudi proiektzioak ere baliatzen dituzu emanaldian. Bertsoak bezain besteko pisua izango dute irudiek ala bertsoetarako maku-lu modukoak izango dira?

Ez dago espektakulartasunik. Emanaldia oso xumea da, soila. Ez dauka pirotekniarik. Proiektzioak eta soinuak lagungarri dira, osagarriak, baina haria eta pisua hitzak darama. Alde horretatik bertso-saio baten tankerakoa litzateke. Pisua hitzetan dagoelako. Beste elementu batzuk daude, bertso-saioetan baliatzen ez ditugunak. Baina funtsa hitzetan dago. Entzuteko emanaldi bat dela esango nuke, trinkoa eta soila.


Azken urteotan, behin baino gehiagotan aritu zara Aginagan. Jakoba Errekondo eta Andoni Egañarekin batera, sagastietan barrera entzun zaitugu kantari. Oraingoan baina Eliza Zaharrean abestuko duzu. Ezagutzen al duzu aretoa?

→ Inñurri elkarteak antolatutako bertso-saio batean abestu nuen eta orduan ezagutu nuen berrituta. Kristoren inpresio ederra egin zidan eta nirea bezalako emanaldi berezi bat egiteko toki polita dela iruditzen zait.

Garai batean eliza izan zena, bestelako prediku laikoan aterpe bilakatu izana, ez al da oso poetikoa bere horretan? Aginagarrek kudeatzen dute gainera. Horrek ere zerikusia izango zuen tokia aukeratzeko garaian.

Lekuek ere izaera bat ematen diete emanaldiei. Saiatzen naiz leku ahalik eta goxoenak topatzen, nire gustuko izaera dutenak topatzen. Aurreko batean Bergarako kartzela zaharrean aritu nintzen, eta uztailearen 18an Aginagako eliza zaharrean izango naiz. Bierrehabilitazio eder iruditzen zaizkit; bizitzari, kulturari eta jendeari emateko. Biek badute halako izaera bat. Ekimen kulturalen aldeko apustua egin dute eta autoantolakuntzan ari dira...

Zentzu ideologiko bat ere badu aukeraketa honek. Esker onez egin dudana aukeraketa izan da.



"Proiekzioak eta soinuak lagungarri dira baina emanaldiaren pisua hitzak darama", Maialen Lujanbiok azaldu digunez.

rr-6-erre(AH)ala emanaldiaren lau saio iragarri dituzu uda honetarako: Elizondon, Bergaran, Lekeition eta Aginagan. Hiriburuetara jotzeko aukera gailentzen ari den honetan, zuk er-

tzera jo duzula esan daiteke, ezta?

Ardatz ezberdinak hartu ditut kontuan. Lurraldetasuna, esate baterako. Saioak geografikoki sakabanatu nahi

izan ditut. Euskararen lurraldean, leku ezberdinetara iritsi nahi dut, eta leku horietan izaeradun espazioak topatu.

Baina horrek ez ditu hiriburuak kanpoan uzten, zein emanaldiaren bosgarren aldaera egin genuenean, hiriburuetan ibili ginen. Dena den, hiriburuetan ere bestelako tokiak bilatu genituen, ohiko zirkuitutik aparte daudenak. Udazken partean segida emango diot biratxo honi eta lurraldetasunaren irizpideari eutsiko diot.

"BERGARAKO KARTZELA ZAHARREAN ETA AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN IZANGO NAIZ. BI ERREHABILITAZIO EDER IRUDITZEN ZAIZKIT; BIZITZARI, KULTURARI ETA JENDEARI EMATEKO"

"NOAUA! bezalako hedabideek informazioa zabaldu eta munduari begiratzeko beste diafragma bat eskaintzen dute"

NOAUA herri aldizkariak 1.000. zenbakia plazaratuko duen asteen hurbilduko zara Aginagara. Usurbildarren –eta aginagarren– mundua, gure modura kontatzeko aukera eskaini digu aldizkariak. Hein batean, elkarren artean komunikatzeko aukera hau ere bada komunitatea osatu eta artikulatzeko modu bat, ezta?

NOAUA aspalditik ezagutzen dut, Usurbil ere nahikoagertukoazait... NOAUAK bezala, tokian tokiko herri hedabideek oso funtzio inportantea jokatzen du-

tela uste dut, eta esparru askotan gainera.

Batetik, komunitatea saretzeko, trinkotzeko eta elkarren berri izateko oso garrantzitsuak dira. Herriari begiratu eta foku bat jartzen dioten aldetik, oso kohesionatzaileak dira, herriko kontuak konpartitzen dituztelako. Alde horretatik, oso inportanteak dira.

Gainera, informazioa zabaldu eta munduari begiratzeko beste angelu bat eta beste diafragma bat eskain-

tzen dute. Beste eskala batean begiratzeko aukera. Gaur egun dena makro, dena global, dena sare sozial den honetan, eta informazioa generalizatze joera nagusi den garaian, inportantea da optika honekin begiratu duen komunikabide bat egotea. Lekuan ardaztutakoa, eta ez kanpo logika batekin. Hemengo komunikabide handiek maiz Madrilgo ardatzarekin funtzionatzen dute eta bertakoan autozentratutako komunikabideak behar ditugu. Es-

parru txikiago bat jasoko dutenak eta, hartara, hura sakontzeko aukera eskainiko digutenak.

Hizkuntzaren ikuspegitik ere, oso inportanteak dira. Nik Hernaniko Kronika-ren kasuan garbi ikusten dut hori: jende erdaldun askok, edo euskaldun aktibo ez diren askok, edo euskaraz egiteko kapacitaterik sentitzen ez dutenek ere jasotzen dute Kronika, eta interesatzen zaie. Eta hori ere oso inportantea da. Eta bilketa edo aglutinatzaile lan hori egitea ere oso garrantzitsua da hizkuntzaren ikuspegitik.



650 Usurbil Bizi herri egitasmoa NOAUAK kudeatzen du. Argazkia 'Usurbil Museo Irekia' ibilbide batean egina da.

Kultura, aisialdia, turismoa... NOAUAREN ekarpena anitza da

Astekaria eta web orrialdea argitaratzeaz gain, NOAUAK beste esparru askotan aritzeko bokazioa izan du betidanik. Gero eta gehiago dira bere gain dituen zereginak eta ardurak.

NOAUA marka astekariarekin lotzea izaten da ohikoena. NOAUAREN ekarpena ordea, askoz aberatsagoa da. Urteekin gainera, NOAUA eremu berrietara iritsi da eta ardura berriak hartu ditu bere gain.

"NOAUA Kultur Elkartearen helbururik nagusia euskal kultura indartzea eta Usurbilen euskara normalizatzea da". 1996ko estatutuetan hala dator jasoa. "Eta hau gauzatzeko arlo hauek urratuko ditu, ezarritako legeko baldintzak bete

ondoren: literatura sustatzea; haurrentzako ekintzak antolatzea; jarduera puntualak burutzea (bertso-saioak, kantaldiak, dantzaldiak...), ikastaroak antolatzea eta argitalpenak plazaratzea (herri aldizkaria,...)". Bistan denez, eremu askotan aritzeko grina hasiera hasieratik izan du NOAUAK. Lehen urteetako indarrak batez ere aldizkarian jarri baziren ere, denborarekin beste eremu batzuetara iritsi da NOAUAREN ahalegina.

Kultur jarduerak

NOAUAK bideratzen dituen kultur jarduerak ez dira gutxi. Usurbilen, NOAUAK antolatzen du Inauteri Festa. Eta badu euskarazko zinemagintzarekin ere konpromiso bat.

"NOAUAREN AHALEGINA EREMU EZBERDINETARA IRISTEN DA"



Inauteri Jaia NOAUA Kultur Elkarteak koordinatzen du.



Zirimarari esker, aisialdia eta kirol jarduera uztartzen dute gaztetxoek.

Urtero lauzpabost film proiektio antolatzen ditu. Kulturaldia da NOAUAREN beste mugari bat, ibilbide luzea osatu duen kultur hamabostaldia.

Aisialdia

Udajolas

Uztaileko udaleku irekiak NOAUAK antolatzen ditu, Udalarekin elkarlanean.

Zirimara

Ikasturte osoan garatzen den jarduera da. 2019an abiatu zen, haurren heziketa eta kirola uztartzeko alternatiba berritzaile gisa.

Turismoa

NOAUA kultur elkarteak 650 Usurbil Bizi herri proiektutik eratortzen diren egitasmoak dinamizatzen ditu, udalarekin eta herriko elkarteekin elkarlanean.

 943 361 182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL


Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08


Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL


Kale Nagusia 35, Usurbil

Babestu NOAUA eta gozatu abantailez

NOAUA Kultur Elkarteak Usurbilen betetzen duen funtzioa sendotzeko, bazkideen ekarpena ezinbestekoa da.

Herri euskaldunagoa eraikitzeko. Usurbilgo albisteen eta deialdien berri izateko. Herri-tarrei bozgorailu bat eskaintzeko. Auzaok eta herriak saretzeko. Sortzaileei plaza bat eskaini eta kultur programazio sendo bat bermatzeko. Eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko. Gaztetxoei aisialdi garairako eskaintza txukun bat ziurtatzeko. Hori denalortzeko, bazkideon ekarpena ere funtsezkoa da.

Jadabazkidezarenok modu erraz batean lagundu dezake-

zue. Nola? Oraindik noaukide ez diren auzokideak, lagunak, lankideak... animatu itzazue elkarteko bazkide egitera. NOAUA Kultur Elkarteak bere jardunari eutsi diezaion.

Egin zaituz bazkide

- 50 euro / urtean.
- 30 urte baino gutxiago badituzu, soilik 25 euro pagatuko dituzu urtean (30 urte betetzean, automatikoki bazkide-tza arrunta izatera pasako da).



Banatzaileek Usurbilgo etxe guztietan banatzen dute NOAUA!

Bazkide izatearen abantailak

Bazkide egiten bazara, abantaila hauek izango duzu:

Zozketak

- Deskontua kultur jardueretako sarreretan.
- Datorren urteko Errenta Aitorpenean hobaria jasoko duzu.

- Usurbildik kanpo bizi direnei aldizkaria posta arruntez bidaliko zaie.

Nola egin naiteke bazkide?

Oso erraza da.

- Bulegoan: NOAUAko bulegotik pasa eta inprimaki bat bete beharko duzu.
- Telefonoz: 943 360 321.
- Internetez: Esteka honetan, noaua.eus/bazkide.

TOKIKOM, inork ez bezalako irismena duen hedabide sarea

TOKIKOM euskarazko tokiko hedabideek osatutako sarea da. Tartean da NOAUA. TOKIKOMek era guztietako produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dizkigu, gure eguneroko lana errazteko.

TOKIKOM osatzen duten 78 komunikabideetatik, gehienak 1980 eta 1990eko hamarkadetan sortu ziren, euskara zabaldu eta normalizatzeko tresna gisa. Tokian tokiko ekimenetik jaiotako proiektuak dira, babes sozial eta konfiantza handia dutenak, eta sorreratik etengabe hobetu eta profesionalizatzeko ahaleginetan dabiltzanak.

Sare eraginkorra

Gaur egun, TOKIKOM da publizitate inbentario zabalena

kudeatzen duen komunikabide taldea. Urtean 24.000 artikulua eta 7.000 bideo baino gehiago sortzen ditu, eta interneten soilik, 50.000.000 orrialde erakusten ditu.

78 komunikabide, TOKIKOMen ziguilarekin

TOKIKOMen 34 agerkari digital, 31 paperezko argitalpen, 4 telebista eta 9 irrati batzen dira. Denek ere tokiko informazioa lantzen dute, eta euskaraz.

Tokiko sare zabal eta trinkoa da, beste inork ez bezalako



34 webgune, 31 paperezko argitalpen, 4 telebista eta 9 irrati daude TOKIKOMen.

irismena eta kapilaritatea duena, eta onarpen maila zabala publikoaren aldetik: 210.000 irakurle paperezko argitalpenetan, eta digitalean, urtean 50.000.000 ikusitako orrialde-tik gora. Erabiltzaile digitalen multzorik handiena du euskara hutsezko medioen artean, komunikabide jeneralistekiko target alternatibo zabala osatuz.

Komunikazio ekintzak modu arrakastatsuan burutzeko euskarri ezin hobea eskaintzen du TOKIKOMek: kanal homogeneoa, publikoaren saturazio txikia eta konfiantza handia duena, hainbat erataria segmentatu eta euskarri zein formula anitzak eskaini ditza-keena, itzulkina ziurtatu eta marka erarik egokienean sal- tzeko moduan.



EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!
www.noaua.eus/bazkidetu/




'ARTXIBO BILUZIA' LIBURUA

Joan Mari Torrealdai bekari esker argitara emana

Egilea: Metrokoadroka sormen kolektiboa

Agitaratzaileak: Usurbilgo Udala, Jakin



ESKAERAK



943 360 321



elkarte@noaua.eus



NOAUAKo bazkideei eskaintza berezia 17 euro
DENDAN 20 euro